

TARTEANek ETA EUSKALTZAINDIAK EKOIZTUA

ANE PIKAZA, OLATZ GANBOA, MIKEL LOSADA, PATXO TELLERIA, MIKEL MARTINEZ

EGILEA: PATXO TELLERIA ZUZENDARIA: JOKIN OREGI

G H E R O



9 parabola euskara planetaren inguruan orbitatzen

Egilea: Patxo Telleria



GHERO: Azken euskalduna,

Euskaltzaindia eta TARTEAN TEATROAren arteko elkarlanetik sortzen da, Akademiaren mendeurrenaren harira.

SINOPSISIA

3000 urtearen inguruan gaude.

Ospitale batean, azken euskalduna hiltzera doa. Eta berarekin, euskara ere, milaka urte iraun duen hizkuntza.

Gaixoaren ondoan, mediku gazte bat, agur honen lekukoa izango dena. Gaixoa eta medikuaren arteko elkartzeko horrek, “big bang” horrek, hedatze narratibo eta emozionala sortzen du, etorkizun eta iraganera joan etorri etengabe.

Hizkuntz preindoeuropear txiki baten biziraupenaren mirariarekiko harridura, miresmena, nahasmena, konplizitatea...

Bederatzi istorio, bederatzi antzerki poema, euskeraren planetaren inguruan orbitatzen.

Antzezlan emozionantea, originala, dibertigarria, harrigarria eta estetikoki ausarta.



Nortzuk gara?

TARTEAN TEATROA bide luze eta aitzatetsia egin duen antzerki konpainia da. Jokin Oregi, Patxo Telleria eta Mikel Martinez dira taldearen sortzaileak eta arduradunak.

Gure antzerki taldearen ezaugarri nagusia berezko Sorkuntza da, hau da, gure ekoizpenak taldekideek sortutako ideia eta testuetan oinarritzen dira.

TARTEANek Euskal antzerkia eta kulturaren aldeko apostu garbia egiten du eta, ahalegin hau arlo desberdinetatik aitortu zaigu. Azken urteotan, sari ugari jaso ditu, hala nola: 2012ko **Max saria** euskarazko testu onenari “Larria, kutsakora eta mendebaldekoa” antzezlanagatik; baita ere, 2013an Patxo Telleriak **Max saria** jaso zuen euskarazko testu onenari “Lingua Nabajorum” antzezlanagatik; 2014an antzezlan honek **Donostia antzerki saria** jaso zuen; eta, azkenik 2015ean “Pankreas” antzezlanak **Ercilla saria** jaso zuen sorkuntza dramatiko onenagatik, bertsio bietan (euskaraz eta gazteleraz). Bestetik, egun, duela urte bete estreinatutako **EZ DOK HIRU** lanarekin biratzen gabiltza, publikoaren harrera beroarekin.



Fitxa Artistikoa

Patxo Telleriak idatzi du dramaturgia eta zuzendaritza

Jokin Oregiren eskutik datorkigu.

Oholtza gainean **Mikel Martinez, Patxo Telleria, Olatz Ganboa,**

Mikel Losada eta Ane Pikaza aktoreak arituko dira.

Eskenografoa **Ana Garay.**

Musikagilea, **Iñaki Salvador.**

Argi diseinua **David Rodriguez**

Diseinu grafikoa **Paradox** Argazkilaria **Mikel Alonso**

Ekoizpen arduradunak **Pio Ortiz de Pinedo eta Myriam Gartzia**



Banaketarako kontaktua
Myriam Gartzia 688 617 712
tarteana@tarteana.com

www.tarteana.com

